

Lazarraga eskuizkribua: Konkordantzia

Hiztegi hau ez da teknikoki hiztegia, **konkordantzia** baino, mekanikoki sorturiko konkordantzia gordina (Simple Concordance Program 4.0.9 bertsioarekin egin dugu). Ez da erabat bukaturiko produktu orraztua, baina gure lanetan baliagarri izaten zaigulako erabaki dugu argitaratzea, beste ikertzaile batzuentzat ere erabilgarri izan daitekeelakoan.

Ondoko ezaugarri hauek ditu:

- Euskarazko, gaztelaniazko eta latinezko testuak nahastean dira, inolako bereizketarik gabe. Hitzak testuinguruan agertzen direnez, erraza da batzuk eta besteak bereiztea.
- Lazarraga eskuizkribuko A testua eta B testua prozesatu dira, ez C testua.
 - A testua letra xehez agertzen da eta gure edizioaren bermea du.
 - B testua letra larriz agertarazi dugu, eta oraindik biribildu gabe dagoen edizioko testuan oinarritua da. Hortaz, B testuko hitzek askoz ere fidagarritasun maila eskasagoa dute.
- Ez dira prozesatu ohar paleografikoetako testuak (urratuak eta).
- Edizio erdipaleografikoko grafian dago testua (adi, hortaz, <c>, <qu>, <ç>, <ce>, <ci>, <v>... grafiekin).
- Konkordantzia-tresnak letrak prozesatzen ditu mekanikoki eta letra-multzoka biltzen ditu (ez dago ez lematizatzailezik ez inolako analisirik). Hortaz, batera agertzen dira *apea* 'musua' eta *apea* 'zaldi gainetik jaitsi', baina bereizita agertzen dira *berba*, *verba* eta *berva* (eta, *jakina*, *berbea*, *berbaric*, *berbaoc*...).
- Prosako testuetan, barra zutak ("/") paragrafoak bereizten ditu. Poemetan, barra zut bakarrak ("/") bertso-lerroak bereizten ditu, eta barra-zut bat baino gehiago ("//" edo "///") tartekatu dira ahapaldiak bereizteko.
- Lerro bakoitzaren ezkerrean agertzen diren zenbakiek ez dute eskuizkribuari buruzko informaziorik ematen.

zan

1174 eztaucat nic bearric,/cegaiti ene escuan ez **zan**/eguiten beste gauçaric./Neure bioça or dauçaçu

ze

1936 /alabeorrec gonea./Oy ainbat dacust lazeria **ze**/eraetan jat, fedea!/Oni aparta al daquiona,/dicha

Nola aipatu testu hau:

Bilbao, G., et al., 2010, *Lazarraga eskuizkribua: konkordantzia (1.0)* [PDF], Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago